

Oposiciones docentes 2025/ 2025 irakasle oposizioak		
Cuerpo o puesto/ Kidegoa edo lanpostua:	Especialidad/Espezialitatea:	Idioma/ Hizkuntza:
Bigarren hezkuntza	HEZKUNTZA ORIENTAZIOA	EUSKARA
PRUEBA PRÁCTICA-PROBA PRAKTIKOA		

Sara Kolonbiatik datorren 6 urteko neskatoa da. Bere familia Iruñera iritsi berria da (azaroan) eta Iruñean dagoen D ereduko ikastetxe batean egin dute matrikula. Matrikula egiterako orduan, Sararen familiak zaurgarritasun sozioekonomiko egoeran dagoela jakinarazi du.

Bere adin kronologikoaren arabera, Sara Lehen Hezkuntzako 1. mailako gelan matrikulatzen da. Sarak, euskara ez ezagutzeaz gain, ikasteko eta parte hartzeko oztopo izan daiteken curriculum gaitasun maila duela ikusten da.

Familiak bere alabaren txosten medikua ekarri du, mugikortasunari eta jarreraren kontrolari eragiten dion garun-paralisiaren diagnostikoa duena: zailtasunak ditu mugimendu mailan, hitz egiteko, ibiltzeko eta eskuak erabiltzeko (ez da laguntzarik gabe elikatzeko gai).

Egoera horren aurrean, Ikastetxeko Zuzendaritzak zure laguntza eskatzen du Sararen harrera ikastetxean eta gelan prestatu eta hezkuntza-erantzuna diseinatzeko. Adierazi, gainera, zer ekintza egingo zenituzkeen ikasturte honetan, esku-hartzeko eremu hauek kontuan hartuta:

- Ikaslea
- Familia
- Ikasleak
- Irakasleak
- Parte hartzen duten edo hartuko luketen beste profesional batzuk.